

ZABALGUNE EKO-BARRUTI EKINTZAILEA PROIEKTURAKO PARTE-HARTZE PROZESUA

Posted on 05/02/2024 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Ensantxea](#), [Gasteiz](#)

Otsailaren 1etik 11ra [Zabalguneko Eko-Barruti Ekintzailea Proiektuaren partaidetza-prozesua](#) zabalik dago, Gasteizko Udalak enkargatutako Zabalguneko XIX.eko etxadien gaineko birgaitze energetikoari eta hiri-berroneratzeari buruzko azterlanaren esparruan egiten ari garena.

Proiektuak hiri erdialdearen papera berreskuratzea du helburu, hiriaren ekonomia, gizartea, ingurumena eta kultura bultzatzeko agertoki nagusi gisa. Horretarako, lau ardatz nagusirekin lotutako **biziberritzeko aukerak identifikatzen eta baloratzea** da xedea: Aktibazio Ekonomikoa, Ezagutza eta Talentua, Hiri-Berroneratzea, Parte-hartzea eta Gobernantza.

Parte-hartze prozesua ostegunean, hilak 1, hasi zen Gasteizko herritarrei eta intereseko eragile publiko eta pribatuei irekitako informazio- eta partaidetza-saio batekin. Saioan zehar NAIDERek proiektuaren aurrerapenak laburki azaltzeko aukera izan zuen, ondoren fase parte-hartzaileari ekiteko. Bertaratutakoak 6 eta 7 pertsona arteko lan-mahaietan banatu ziren, eta Zabalguneko mapa baten eta ohar itsaskorren laguntzaz, proiektuaren lau ardatzekin lotutako aukerak identifikatu zituzten: aktibazio ekonomikoa, ezagutza eta talentua, hiri-berroneratzea, eta gobernantza eta parte-hartzea.

Egun berean, informazio- eta partaidetza-panelek osatutako erakusketa publiko bat inauguratu zen, proiektua ezagutzeko eta ideiak eta proposamenak aurkezteko aukera ematen duena. Erakusketa hilaren 11ra arte egongo da zabalik.

Astelehen goizean, hilak 5, **Haizea Aguirre Puértolas** gure lankideak, NAIDEReko Arkitekto Urbanista Nagusiak, [Radio Vitoria Gaur](#) saioan parte hartzeko aukera izan du **Aratz Goikoetxearekin** (0:30 min). Bertan, proiektu osoari buruz hitz egin da, herritarrei parte hartzera animatzeko.

Parte-hartze prozesuak otsailaren 11ra arte jarraituko du, parte hartzeko modu ezberdinekin:

- Erakusketa bisitatuz eta ideia eta proposamenekin lagunduz.
- Zabalgunea XIX Elkarteak dinamizatutako solasaldietan parte hartuz. Solasaldi horiek Zabalgunearen etorkizunari helduko diote ikuspegi ekonomiko, komertzial, urbanistiko eta kultural batetik. Solasaldiak otsailaren 5etik 8ra izango dira [Amarika aretoan](#), 19:00etatik 20:30era.
- Bertaratzerik ez dutenek [online inkesta](#) bete dezakete, edo email bat bidali ensancheXIX@vitoria-gasteiz.org helbidera.







